

Kinpart⁵⁵

www.hautzaroikastola.net

Hautzaro
ikastolako
aldizkaria

2013ko
MARTXOA





txinpart⁵⁵

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hurtzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	12
Hatzak bete lan	16
Gu ere kazetari	36
Nahaste borraste.....	42

ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola
Elorrondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Neguko hotzaren ugta ederrak

Aurreko aletik hona hiru hilabete pasatu ditugu; urteko sasoirik gogorrena, negua. Eta etengabe jasan ditugun zaparradek ez gaituzte beratu. Geletako eguneroko lana tirriki-tarraka bere bidetik joan da, talde guztien malgutasuna eta prestutasunari esker helburuak mantenduz. Txinparteko irudiak, horren guztiaren adierazle.

Aipatutako prestutasunaren premian egongo gara aurrerantzean ere, aurre egin beharreko erronkak egunero topatzen ditugu eta; guztion ahotan dabilen Estatuko gobernuak ezarri nahi duen Hezkuntza legea, esaterako.

LOMCEk jarri nahi digun bide estu eta ilunari aurre eginez, ikastolok proiektu berri-tzaileekin aurrera goaz. Adibidez, argi izpi berriz beteko gaituen EKI proiektua (bigarren hezkuntzarako proiektu berritzailea) gurean izango dugu datorren irailean, eta KEI kalitate egitasmoarekin jarraituko dugu ikastolako eskaintza eta funtzionamendua etengabe hobetzen jarrai dezagun.

Pasatu berria dugun 13-14 ikasturterako matrikulazioa ere aipatu nahiko genuke; bereziki gudan, Haurtzaro Ikastolako proiektuan, sinetsi duzun familia berriei ongi etorria eman nahi dizuegu. Gure ikastola aukeratu duzun herritar kopuruak indartzen du ikastolak egina duen apustua: HEZKUNTZA EREDU PROPIOA IZATEN JARRAITZEA, EUSKALDUNA, ELEANITZA, BERRITZAILEA, HERRIKOA, PARTE-HARTZAILEA ETA SOLIDARIOA.

Txinparteko bigarren alean, Haurtzaron ikasleek, irakasleek eta beste profesionalak lanean darraigula ikusiko dugu: teknologia berrietan, geletako proiektuetan, curriculum osatzen duten gaietan (hezkuntza afektibo-sexuala, Eurohiria...), Euskaraz Biziz egitasmoan, Esperientziaren eskola proiektuan... ikasleei protagonismoa emanez. Hezkuntza ez baita gelan egiten den bakarra, zerbait zabalagoa, baizik.

Amaierarako utzi dut Korrikaren aipamena. Bi urtez behin Euskal Herria puntatik puntara zeharkatzen duen euskaltzaletz osatutako eta etenik gabeko sokan, guztiok euskararekin dugun konpromisoa irudikatuko dugu. Aurtengo leloak dioen bezala, kanpoko giroari fronte eginez, euskara ez dago eskasian, euskaltzaletzok badugu elkarri zer eman: Animo, eta euskara zabaldu!

Irakurritz gozatu
eta
gozatuz irakurri!



Oiartzungo

udal ikastola partzuergoa



“Espazioen antolaketa haurren autonomia garatzeko”

2012ko azaroan, Hik Hasik antolatutako “Espazioen antolaketa haurren autonomia garatzeko” jardunaldietan gure proiektua aurkezteko aukera izan genuen. Jardunaldi horiek Durangon eta Donostian izan ziren.

Alderdi teorikoa, Jose Ramon Mauduit psikologo eta prebentzioan adituak eta Rosa Vidiella i Badell hezitzaile espezializatua eta pedagogoak (Pickler-Loczy eskolakoa) azaldu zuten, eta ondoren Baztango eta Oiartzungo Haur Eskolek gure proiektuetako espazio antolaketa aurkeztu genuen.



Bi haur eskola proiektuak Reggio Emiliako udal haur eskoletako antolaketa oinarri izan dugu, baina herri bakoitzean proiektuak modu ezberdinean garatu dira, bakoitzaren errealitatera eta beharretara egokituz.

Bi haur eskoletako barruko espazioen antolaketan, sarrera plaza eder bat da, argitsua eta gardena, guraso, haur eta hezitzaileentzat bilgune; psikomotrizitate gela, tailerra eta gela argi, eroso eta ongi hornituak daude, eta sukaldea sarreran guztion bistan.

Gure haur eskolako kanpoko antolakuntzari ere garrantzi berezia eman diogu. Eguzkiaren norabidea ere kontutan hartu da, batez ere goizeko eguzkia kan-





poko eremuan izateko; haur eskola eki-hegoaldera begira dago. Kanpoan espazio ezberdinak antolatuta dira: Lur gogor edo hormigoi eremua, sarrera eta jolaslekuko eremu bat inguratzen duena, harri txintzar eta hondar eremua, "basotxoa", baratza eta egurrezko etxetxoa .

Harri txintzar eta hondar eremua elipse forma baten barruan daude. Hondar eremua enbor txiki batzuk mugatzen dute eta zati bat irekita dago; harri txintzar eremuan, balantzina, zuloz betetako esfera erdi bat, txirrista txiki bat, zuhaitz enbor zatiekin egindako koka forma bat (lurrari finkatuta) eta bi arraska ur iturriekin. Elipse barruko belar eremuan tubo edo hodi gogor bat ere badago maldaxka batean. Hiru pretil ditu inguruan, eta horietako baten gainean ola eder bat itsatsita, mahai funtzioa eginez. Elipsea hormigoizko bide batek inguratzen du.

Basotxoa. Aurretik bertan zeuden zuhaitz eta landare batzuk mantendu dira, zuhaitz enbor zahar bat lurrian etzanda utzi da, eta lanak egin ziren garaian ateratako harri haundiak ere mantendu dira zirkulu forman kokatuta.



Ingurua. Haur eskolako eremuetatik kanpo, beste espazio hauetan ere ibiltzen gara: herriko parke eta jolasleketan, bide-gorrian, Mendibilgo Txaran eta auzoan barrena.

Haurren autonomia garatzeko baliabide ezberdinak eskaintzen dituzten espazioak lortu ditugu eta emaitzarekin oso pozik gaude!!

Marijo Arozena

Eskola Agenda 21

ENERGIA-KONTSUMOA gutxitu dezagun!

Bigarren ebaluazio honetan zehar, Eskola Agenda 21 programak gidatu bezala honako ekintzak burutu ditugu:

- **ANTOLAKETA fasea:** 2013ko urtarrilaren, ikastolako **Ingurumen Batzordea** osatzen dugun ikasle, guraso eta irakasleen ordezkariak bildu ginen, aurtengo proiektuaren diseinua eta helburuak ezagutu eta partekatzeke. Horren lekuko gisara lanerako erabili dugun mapa mentala gure ikastolako teknozientziako blogean zintzilikatu genuen: <http://haurtzarozientzia.wordpress.com/category/agenda-21/>
- **ENERGIA-KONTSUMOA gutxitu dezagun!** lelopean honako bi helburu nagusi zehaztu genituen:
 1. Ikastolako eraikina energetikoki efizientea goa bilakatzeko urratsak ematea.
 2. Ikastolako kideok energia kontsumoarekiko praktika onak garatzea.
- **MOTIBAZIO fasea:** 2013ko urtarrilaren bigarren hamabostaldian, ikastolako maila guztietan, gelaz gela, motibazio saioak egin genituen. Horretarako http://berde-berdea.net/archivos_peliculas/energia/index-eu.htm web orriko IKT baliabideak erabili genituen.
- **SENTSIBILIZAZIO fasea:** Inauteriak igaro ondoren, programaren fase honi heldu genion. Honela, Lehen Hezkuntzako ikasleek gaiarekiko MURAL ederrak sortu eta ikastolako paretetan ikusgai eskegi zituzten. Eta, DBHko ikasleok, bestalde, proiektua sinbolizatuko duen LOGOa sortzeko "logo lehiaketa" antolatu genuen.
- **DIAGNOSTIKO fasea:** Azkenik, oporrak hartu aurreko asteetan DIAGNOSTIKO faseari ekin genion, ikastola osatzen dugun kideoi **On Line GALDEKETA innobatzailea** pasatuz. Hemendik, parte hartuz erantzun zenuten guztioi, Mila esker!

http://berde-berdea.net/archivos_peliculas/energia/index-eu.htm





Jakiunde:

"Jakin-mina" ekimenean DBH 4ko ikasleak partaide (EHU)

JAKIUNDE Zientzia, Arte eta Letren Akademiak Euskal Herriko Unibertsitatean antolatutako "Jakin-mina" ekimenean DBH 4. mailako ikasleak partaide

Duela pare bat ikasturte, Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiak "Jakin-mina" izeneko ekimena martxan jarri zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kultura Zientifikoko Katedrarekin batera, gazteen garapen intelektuala eta pertsonala bizkortzera bideratuta.

Goi mailako profesionalek eskainitako hitzaldiz osaturiko diziplina anitzeko programa honen bitartez, gazteen jakintza-eremua zabaldu nahi du akademiak, eta jakin-mina piztu, beren interesa erakarrita ezezaguna bilatzera anima daitezen.

Aurten, DBH-4.mailako Aitor Ibarguen, Jokin Lekuona, Leire Olaizola, Enara Irigorri, Maider Olaizola, Olaia Aduariz eta Mikel Urdanpilleta ikasleek bost hitzaldietara joateko eskaera egin zuten, eta horietaz gozatzen ari dira.

Hitzaldiak eta emailak honakoak dira:

1. Hitzaldia: 2012ko azaroak 30
"Egingo al dugu Jurassic Park berri bat Gorbear?" (euskaraz)
Ana Zubiaga Doktore eta irakaslea, Genetikako katedraduna (EHU/UPV)

2. Hitzaldia: 2012ko abenduak 14
"Espezializazioa eta diziplinartekoa. Historiaurre alorreko azterketak" (euskaraz)
Jesús Altuna Doktore eta irakaslea, Antropologia, eta arkeologia ustiaketen zuzendaria
3. Hitzaldia: 2013ko urtarrilak 25
"Cerebros lectores: ¿qué cambia cuando aprendemos a leer?" (gaztelaniaz)
Manuel Carreiras irakaslea, Basque Center on Cognition, Brain and Language ikastetxeko zuzendaria
4. Hitzaldia: 2013ko otsailak 8
"Emoción y conducta" (gaztelaniaz)
María C. Rodríguez-Oroz, Ikerbasque, Biodonostia Ikerketa-institutuko irakaslea. Donostiako Ospitale unibertsitarioa
5. Hitzaldia: 2013ko martxoak 1
"Polímeros, energía y medioambiente" (gaztelaniaz)
David Mecerreyes, Ikerbasque, Polymateko irakaslea (EHU/UPV)



Inauteri egunean, DBH-4.mailako ikasleek, kiroldegiko jaialdian pozez parte hartu ondoren, autobusa hartu eta Unibertsitatara ikastera joan ziren. ZORIONAK koadrila osoari!

Jesus Cabrero orientatzaile adituak otsailean ikastolan eskaini zigun hitzaldian esan bezala, gure gazte hauek bere egin zuten, defendatu zuen leloa:

"Festa, poza, bidaiak eta ikastea"



Ibilaldiak eta ekintzak

Haur hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH2	OTSAILAK 15	EUSKADIKO ORKESTRAKO ETXEAN	KONTZERTU PEDAGOGIKO BAT ENTZUNA
HH1,2,3	MARTXOAK 22	KORRIKA TXIKIA.HERRIKO KALEETAN	"KORRIKA" GURE ARTEAN OSPATU
HH1	MARTXOAK 7	BASORA	NATURAZ GOZATU

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 1. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 1	Urtarrilak 17	Arrikruz	Gaian sakondu
LH 1	Urtarrilak 28	Zinema euskaraz	Zinemaz euskaraz gozatu
LH 1	Martxoak 22	Korrika txikia.Herriko kaleetan	"korrika" gure artean ospatu

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 2. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 2	Abenduak 14	Pasaia	Itsas gelaren bidez itsasontzien erabilera ikasi
LH 2	Urtarrilak 28	Erreterria	Zinema euskaraz kanpainan parte hartu
LH 2	Otsailak 28	La Casa del Cafe	Kafearen Ekoizpen prozesua ezagutu
LH 2	Martxoak 22	Korrika txikia Herriko kaleetan	"Korrika" gure artean ospatu

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 3. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 3	Urtarrilean	Ikastolan. Berde- Berdea	Energia landu
LH 3	Urtarril-otsailetan	Kiroldegia	Igeriketan trebatu
LH 3	Otsailean	Angel Bergaretxe gela	Papera nola egiten den ikusi
LH 3	Martxoan	Ikastola	Txotxongiloen emanaldia. Txanelako proiektua
LH 3	Martxoaren 22an	Korrika txikia.Herriko kaleetan	"Korrika" gure artean ospatu

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 4. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 4	Urtarrilak 24	Mimo eta Pantomima emanaldia	Gorputz adierazpena landu
LH 4	Otsailak 26	Donostiako Santa Teresa ikastetxea	Ingeleseko antzerkia ikusiz mintzamina eta ulermena landu
LH 4	Martxoak 22	Korrika txikia.Herriko kaleetan	"Korrika" gure artean ospatu

Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 5. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 5	Otsailak 22	Gernika	Batzarra eta Euskal Herria museoa ezagutu
LH 5	Otsail-/Martxoa	Aditu batekin "teknologia berrien" lanketa.ikastolako geletan	Teknologia berriak egoki erabili
LH 5	Martxoa	Ikastolako laborategian	Esperimentuen bidez gelan idatzitako hipotesiak frogatu
LH 5	Martxoak 21	Pintxo dastatzea. ikastolako geletan.	Pintxo osasuntsuak egin
LH 5	Martxoak 22	Korrika txikia. Herriko kaleetan	"Korrika" gure artean ospatu



Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 6. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 6	Urtarrilak 16	Odol emaile elkartekoekin tailerra	Odolaz eta organo emateaz ikasi
LH 6	Otsailak 4	Santa ageda bezpera	Euskal tradizioetan parte hartu
LH 6	Otsailak 8	Inauteriak	Euskal inauteriak ezagutu
LH 6	Martxoak 14	Errenteriako Niessen aretora	Zinema euskaraz

DBH 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH 1	Urtarrilak 16-25	Eskola agenda 21: energia eta kontsumoa	Motibazio saioak
	Urtarrilak 28	Loiolako (Donostia) araztegi bisita	Ur zikinen araztegi prozesua ezagutu
	Otsailak 4	Santa Ageda bezpera	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 8	Inauteriak	Euskal inauteriak ezagutu
	Otsaila amaiera	Heziketa afektibo sexuala	Saioak Garbiñe Merino sexologoarekin
DBH 2	Urtarrilak 16-25	Eskola agenda 21: energia eta kontsumoa	Motibazio saioak
	Otsailak 4	Santa Ageda bezpera	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 8	Inauteriak	Euskal inauteriak ezagutu
	Otsaila amaiera	Heziketa Afektibo Sexuala	Saioak Garbiñe Merino sexologoarekin
DBH 3	Urtarrilak 16-25	Eskola agenda 21: energia eta kontsumoa	Motibazio saioak
	Urtarrila amaiera	Heziketa Afektibo Sexuala	Saioak Garbiñe Merino sexologoarekin
	Otsailak 4	Santa Ageda bezpera	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 8	Inauteriak	Euskal inauteriak ezagutu
	Otsailak 27	“Kalean uso, etxean otso”	Berdintasun programa: emakumeen aurkako tratatu txarrak.
DBH 4	Urtarrilak 11	Irudi biziak Irunen	Etikako irakasgaia landu
	Urtarrilak 16-25	Eskola agenda 21: energia eta kontsumoa	Motibazio saioak
	Urtarrila amaiera	Heziketa Afektibo Sexuala	Saioak Garbiñe Merino sexologoarekin
	Otsailak 4	Santa Ageda bezpera	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 6	Ikastolako areto nagusian	DBH 4.maila amaierako orientazioa: J. Cabrero orientatzailearen hitzaldia.
	Otsailak 8	Inauteriak	Euskal inauterien ezagutza eta ikastolari azken eskaintza.
	Otsailak 28	Eurohiria programa	Trukea
	Otsailak 28	BTEK Zamudion	Parke teknologikoa ezagutu: robotika.

QR kodeak

Informatzea eta komunikatzea beharrezkoa suertatzen zaigun gizarte honetan, teknologia berrien eskutik desio hori ezin aseturik ibiltzen gara. Gure egunerokotasunean barneratuta dugu gainera, pentsa bestela nor ateratzen den gaur egun mugikorrik gabe etxetik edo dudu baten aurrean nork egiten dion uko Google-n kontsultatzeari bere amaigabeko jakituria horrekin dudu horiek argitzen lagun gaitzan. Informazioa beharrezkoa zaigu eta gaur egun informazio asko dugu eskura, gehiegi akaso eta sarritan kosta egiten zaigu behar dugun hori aurkitzea edo besterik gabe badagoela jakitea. Informazio guzti honen ordenamendua eta eskuragarritasuna antolatzeke garaian baliabide ezberdinak ditugu eskura eta gaurkoan hauetako baten berri emateko asmoz zuzentzen natzaizue: QR kodeak.

Dagoeneko ohartuko zineten bezala Txinpart aldizkari honen azalaren goialdean kode-barra bat dirudien karratutxo txuri-beltz bat dago. Kode-barra hau QR kode gisa ezagutzen da eta Txinparten aurreko zenbakitik txertatu dugun berrikuntza da. Kode hau bera aurkituko duzue Haurtzaro Ikastolatik astero bidaltzen dizuegun buletinaren eta poliki-poliki toki gehiagotan. Baina zer dira QR kode hauek? Eta garrantzitsuagoa dena, zertarako dira?

QR siglak ingelesetik datoz (Quick Response) eta erantzun azkarra esan nahi dute. 90. hamarkadan Japonian asmatu zuten kode hau eta zehazki kotxeen piezak biltegitratzeko erabiltzen zuten. Biltegitratzea azkartzeko helburuarekin pieza hauen identifikazioa erraztea bilatu zuten, horregatik du forma karratua eta alboetan hiru karratutxo, modu honetara berdin du kodea zuzen, alderantziz ala zeharka dagoen irakurgailuak beti jakingo du kodea behar bezala irakurtzen.

Gauza ezberdinak kodetu daitezke: testu jakin bat, mugikorrekiko kontaktu baten datuak edo web-orri baten URL helbidea. Baina zer behar dugu kode hau deszifratzeko:

1. Kamera edo eskaner bat QR kodearen irudia jasotzeko. Ordenagailua ere erabili daiteke baina erabilgarriagoa da gaur egungo smartphone edo tableta baten kamera erabiltzea.
2. Kodea deszifratuko duen programa edo aplikazio bat. Esan bezala smartphone eta tabletei zuzenduta dago kodeketa honen erabilera eta aplikazio asko dauden arren zenbait aipatuko ditut jarraian:
 - *Android sistema eragilerako:* Google Goggles, QR Droid, QR BARCODE SCANNER,...
 - *Appel-en iOS sistema eragilerako:* Lector QR, i-Nigma,...
 - *Blackberry-entzako:* CodeMuncher, ScanLife Barcode Reader – Auto,...

3. Kasu gehienetan interneterako konexioa. Aurreko baldintzak betetzen baditugu QR kodeak deszifratzeko gai izango gara eta kaletik goazela hainbat erabilpenetarako balio duela ohartuko gara. Donostiako alde-zaharrean pintxo batzuk jaten ari zaretenean ohartu zaitezte zenbait pintxoren gainean honelako QR kodeak daudela, hartu mugikorra zuzendu kamara QR kodera eta dagokion aplikazioarekin deszifratu ondoren zuzenean internetera abiatuko da mugikorra eta bideo bat kargatuko zaizue, bertan pintxo horren osagaiak eta egiteko modua ikusteko aukera izango duzue bideo batetan. Iruñeara bazoazte eta bertako harresiak bisitatzen ari zaretela QR kode bat ikusten baduzue sarreretako batean deszifra ezazue eta berehala web-orri bat kargatuko zaizue Nafarroako maparekin. Bertan Nafarroan zehar dauden beste gune harresituen berri izango duzu eta GPS bitartez adierazitako puntura joateko aukera ere izango duzu. Kontzertu edo antzezlan baten berri ematen duen kartelean QR kodea ikusten baduzu deszifra ezazu eta ekitaldi horretarako sarre-
rak erosteko webgunera zuzenduko zaitu, bertan aurkituko duzularik ekitaldi horren inguruko informazio guztia. Hauek adibide batzuk besterik ez dira, gauza gehiagotarako ere aplikatzen dira QR kode hauek.

Baina QR kode hauek ematen duten jokoa ez da kodeak irakurtzearena bakarrik, guk ere zenbait aplikaziorekin edo internet-eko zenbait webgunetan QR kodeak sortu ditzakegu. Zertarako ordea? Esate baterako Durangoko azokan ginkana-joko bat antolatu zuten, hitz bat osatu behar zen eta hitz horren letra bakoitza lortzeko QR bitartez kodetutako galdera bat erantzun beharra zegoen. Beste erabilpen bat izan daiteke gure mugikorrekiko kontaktu baten datuak QR bidez kodetzea eta beste bati kodea pasatzea, honela besteak datu horiek automatikoki jasoko ditu. Beste aukera bat izan daiteke negozio baten jabea izatea eta webgune bat edukitzea, publizitatean QR kodea txertatuz bezeroak modu errez batetan zure webgunera zuzen ditzakezu.

Tresna interesgarria da modu errez batetan nahi dugun horretara bideratzen gaituelako. Gainera onar dezagun, kuriositatea da gizakion ezaugarri bereizgarrietarikoa bat eta nola eutsi hauetako karratutxo bat begien aurrean dugunean gordetzen duena jakiteari...eta aizue!! nora bideratzen zaituzte Txinparteko QR kodeak?

Aritz Gonzalez
IKT Taldea





Mugaz gaindiko elkartrukea

Haurtzaro ikastola eta Bernat Etxepare Lizeoa-BAIONA (Seaska)


Eurohiriko Mugaz Gaindiko Agentziak mugaren bi aldeetan egiten du lan, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Baiona-Angelu-Miarritze eremuko agintariek bi mugen aldetako erakundeen elkarlana eta lankidetzaz bultzatzeko konpromiso-akordioa sinatu zutenetik.

Horren harira, aurten, mugaren bi aldeetako bigarren hezkuntzako ikasleen ingurumen elkartrukeak antolatu ditu, non Lapurdi eta Gipuzkoako 300 ikasle inguru, ingurugiroarekin zerikusia duten gai bat (kobazuloak eta meategiak) landuta, ikasturtean zehar elkarlanean arituko diren, gero, ikasturte bukaeran Mugaz Gaindiko Kon-

gresua ospatu eta lan horiek elkarri erakusteko.

Helburu ezberdinak dituen proiektu honek: mugaren bi aldeetako errealitateak ezagutzea, ikasleen arteko harremanak sortzea, hizkuntza lantzea, Euskal geografia ezagutzea, ingurumen arloak lantzea, ikasleek kongresu batean parte hartzea zer den ezagutzea ...

Aurten, Haurtzaro Ikastolako DBH-4.mailako Biologia Geologiako 24 ikasleek Baionako, Seaskako, Bernat Etxepareko Lizeoko beste adina ikasleekin elkartrukean parte hartuko dute. Egitasmo honen egitarauan, otsailaren 28an, Baionako ikasleak Oiartzunera etorri ziren, Arditurriko ingurunea ezagutzera eta apirilaren 9an, oiartzuarrak Iparraldera joango gara.





Euskararen
TXOKOA

EMAN EUSKARA ELKARRI

Bigarren hiruhileko honetan, agendak hain betarik izan ditugun honetan, Euskaraz Bizi egitasmoak izan du bere lekua eta ez nolanahikoa.

Alde batetik, urtero egiten dugun eran, hiztun neurketak egin ditugu ikasleen artean. Jasotako datuak bildu ondoren, ondorioztatu ahal izan dugu euskarak, Haurtzaro ikastolan, osasuntsu jarraitzen duela. Baina, era berean, hobetzekoak diren zenbait alderdirekin egin dugu topo: esaterako, ikasleek egunero erabiltzen

dituzten erdaratiko esaldiekin; eta horiei heltzen saiatu gara, Euskara Hobean Hobeko esaldietan txertatuz.

Bestetik, hain arrakastatsua izan ohi den Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu kanpaina murgildu gara martxoaren 11tik 22ra bitartean. Kanpaina horretan zehar, ahozkotasuna lantzea izan da gure helburu nagusia, jolasetan elkar animatzeko erabiltzen diren esamolde jatorrak indartuz: eman gogor!, eutsi goiari!...



Girotzeko, 18. KORRIKAKo Bagoaz! abestia aukeratu dugu. Izan ere, hamabostaldiaren barruan Korrika 18 ospatu dugu. Eman euskara elkarri dio leloak, euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko. Martxoaren 14an hasiko da Andoainen eta martxoaren 24an bukatuko da Baionan. Egun horretan bertan igaroko da Oiartzundik goizaldeko 01:27an.

Martxoaren 22an, ikastolako HH eta LHko ikasleek, KORRIKA TXIKIAN hartuko dute parte; eta DBHkoek berriz, KORRIKA GAZTEAn.

Beraz, euskararen alde egiteko ekintza ugari ditugu eta anima zaitezte!



ESKUTTUN *Euskara Elkarte*

Kaixo denoi!

Eguraldi ona lagun, urteroko ohitura jarraituz, jolasen inguruan antolatu dugu ikasturteko bigarren kanpaina. LHko ikasleak Euskal Herriko kirol tradizioaletako batzuk praktikatz aritu dira jolas-garaietan: txikortabilketa, toka, sokatira eta zaku-lasterketa. Horren helburua, animatzerakoan gaztelaniara jotzeko dugun ohitura ikusita, euskaraz animatzea da: “eutsi!”, “eman gogor!”, “heldu!”, “utzi!”, “hori duk eta!”, “ona!” eta antzerako esapideen presentzia ziurtatuz. Horretarako, klase orduetan, tarteak eskaini zaizkie ikasleei pankartak, esaldiak eta abar atontzeko.

Beste plan bat prestatzen dugu urtero DBHko ikasleentzat: pilota eta futbol txapelketak. Pilotan binaka eta futboleko gelaka, partida itzelak jokatu dira, emozioz eta animoz beteak. Futboleko, berdinketa kasuetan, euskarazko animo gehien jaso dituen taldea sailkatuko da. Horrela, gure helburua bete dugu: jendeak euskaraz animatzea bai futbol-zelaian eta bai frontoian.

Parte-hartzearekin ere ezin gara kexatu. Pilotan 24 bikote ausartu dira jokatzera, futboleko berriz, DBHko 10 geletatik 8.

- -

Bestetik, bi urtetik behin bisita berezi bat izaten dugu: Korrikarena. Jada pasa dira bi urte azkena egin zenetik; beraz, aurren tokatzen da. Horren harira, martxoaren

ren 22ko Korrika txikiaren antolaketan laguntzen aritu gara: ibilbidean zehar pankarta eramaten lagundu diegu ikasle ttikienei; eta ondoren, plazan, txokolatea eta gailetak banatu ditugu, urtero bezala.

Ilunabarrean egingo den Korrika gaztean ere hartuko dugu parte. Herrian barrena, herriko gazte eragileen artean ibilbidea osatuko dugu, eta amaieran, denen artean ekarritako janariarekin, merienda egingo dugu. Gainera, ikastolak erosi duen Korrikako zatian Eskuttunek izango du lekukoa eramateko ardura eta ohera martxoaren 24ean. Urteko momenturik zirraragarriena da euskara elkarte hau osatzen dugunontzat eta egun hori heltzeko irrikan gaude.

- -

Euskaraz Bizi taldearekin batera, “Euskara Hobe Hobe” aurrera eraman dugu, berezitasun batekin: esaldi okerrak zuzenekin ordezkatu beharrean, oartzuera bultzatzeko esaldia ipini dugu: **“Poliki eskailetan goiti eta beheiti!”** “Abiadura gaitzean heldu da KORRIKA!”

Bukatzeko, gogoan izan: **“GU EUSKARAZ BIZIZ, BIZIKO DA EUSKARA!”**

Eskuttun Euskara Elkarte
eskuttun.ikasblog.net



Kaixooo denaai!!

Gu DBH1eko Kuadrillategiko gaztiak ga! Kuadrillategin, ekintza difente pilla bat itten ttugu. Adibidez, azkeneko sayun karaokia in genun ta oso-oso ongi pasa genun. Horrez gain, beste hauek re in ttugu: iragarkiak asmatu, lagun ezkutua, mihi luze jolasa, oka erraldoia, jolasak...

Ekintzak guk asmatzen battugu re, asko laguntzen diguten lau begirale ttugu: Aiora, Alazne, Aitzol ta Irati. Oso oso ongi pasten dugu ta ekintzetan denak asko hartzen dugu parte. Gainea, lagun berriyak in ttugu.

Hurrengo urtian aukera bazute, 6.mailan zozten guztiyai apuntatzia gomendatzen zattuztegu. Kuadrillategi ostiraletan izanta, astia ondo biño hobeto bukatuko zute ta!

Ongi ongi segi ta beste bat arte!

*DBH1eko Udane A., Intza M., Nerea V., ta Nerea F.
KDR*



Kuadrillategi

Kaixo!

Gu Kuadrillategiko partaidik ga ta ostiralero dorretxin bil-tzen ga. Astero ekintza difentik itten ttugu, beti euskaraz ta lagunarte polittin. Denetariko ekintzak itten ttugu: antzerki leihaketak, pizza tallerrak, pelikulak ikusi, antzerkiak, jolasak... hau guziya itten erki pasten dugu. Izane, guk aukeratzen ttugu itten ttugun ekintzak ta. Hemen gaudenetik Oiartzungo gure kintako gazte guzi-yan arteko harremanak sendotu ttugu ta oso gustoa

gaude. Gainea, ostiralero itten ttugun ekintzaz aparte, tar-teka irteerak e itten ttugu ta oso-oso ongi pasatzen dugu.

Aukera zutenin zuek e animatu, erki pasko zute taa!!


Kuadrillategiko partaide batzuk: Nerea A., Alazne C., Maialen L., Udane G., June I. eta Ylenia M.
KDR





HH1

EURIA, ZAPARRA, BUSTIKO
ZAIT BIZKARRA... BURUA, BE-
SOAK, HANKAK... NEGU HONE-
TAN EZ ZAIGU GORPUTZEKO
ATALIK IA BUSTI GABE GERATU,
IZAN ERE, EURIA BESTERIK EZ
DU EGIN AZKEN ALDI HONE-
TAN. HH1KO NESKA MUTIKOOK
EDERKI ASKI IKASI DUGU NOLA
ESAN BEHAR DUGUN "EURIA
ARI DU". BESTALDE ZENBAT
EURI EGIN DUEN JAKITEKO
PLUBIOMETROAK EGIN DITUGU
GELETAN. BEHIN BAINO GEHIA-
GOTAN, HUSTU BEHAR IZAN DI-
TUGU HAINBESTEKO EURI JASA
BOTA ETA POTOEK GAINEZKA
EGIN DUTELAKO. ESKERRAK
ORAINXE UDABERRIAN SAR-
TU GARELA, EA EGUZKI IZ-
PIEKIN GOXATZEN GAREN
BEHINGOZ!





HH2

HAUR HEZKUNTZAKO LAU URTEKOAK EUSKADIKO ORKESTRAREN ETXERA JOAN ETA "PLOK PLOK PLIK" ANTZERKI MUSIKATUA IKUSI ETA ENTZUN GENUEN. BAI POLITA!!

HARA JOAN AURRETIK IRATI HUIZI ETO-RRI ZITZAIGUN GELARA KANTA BATZUK JOTZERA. BERAREKIN ABESTU GENITUEN. OSO ONDO PASA GENUEN!



HH3



HH3 KOAK NEGU ILUN HONI
KOLORE PIXKA BAT JARRI NAHI
IZAN DIOGU





LH1

Beste gai batzuen artean, lehen gizakien gaiarekin aritu ginen jo eta su .Gure arbasoen bizitokiak ere bisitatu genituen. Oñatiko Arrikutzko kobazuloetan egon ginen eta zorte handia izan genuen, izan ere, koba barneko erreka urez gainezka ikusteko beta izan baikenuen. Lehen gizakien garaian bete-betean murgildurik ibili ginen horretan, antzerkia ere egin genuen. Antzerkirako tresnak, jantziak, kobazuloa, sua... egin ondoren, gure emanaldiarekin amaitu genuen gaia.

Zenbat lan egin behar izan zuten gure arbasoek, ama!





LH2

ARABIA

Laugarren unitate honetan Arabiako gaia landu dugu. Arabiarren bizimodua aztertzeke, artearen inguruan zeinen aberatsak izan ziren ikusi dugu eta beren ekarpenez gozatu.

Musulmanek lerroekin eta koloreekin forma harrigarriak sortzen zituzten, eta forma horiek sortzeko oinarritzko modulu batzuetan oinarritzen ziren. Gu ere, beraien teknikak erabiliz, artelanak sortzen aritu gara.



INAHIERIAK

Inauteri haurra emateko txarriak jan genituen.
Orbesta txinporikoko musikariz mozorrotu ginen.
Dantzak ikasteko entsaio asko egin genituen eta antzerkia ere
egin genuen. Plastikaz musika tresna harrigarriak sortzeko
proiektatu genituen. Eguraldi txarra egin zuten oron
Ezizimera para genuen!

2. mailakoa




Xangai Xian XI, jolastu eta ikasi


Kaixo irakurle:

Oraingoan hirugarren mailako ikasleok Txina gaiarekin ikasi duguna kontatuko dizuegu.

Hasteko, txinatarrek oso alfabeto desberdina dutela jakin dugu eta gure izenak idazten saiatu gara. Ez da batere erraza izan, baina begira nola idatzi ditugun!



Hitz egiterakoan ere hots desberdinak dituztela ohartu gara, baina zenbait esaldi esaten ikasi dugu.



Txotxongiloak egiten ere oso iaioak direnez, guk ere egitea pentsatu dugu. Eta taldeka gidoi bat prestatu ondoren, primeran pasa dugu emanaldiarekin!



Eta nola bizi diren jakiteko, bertako argazkiak, dirua, arropa, jateko txotxak, errezetak, zeramika, liburuak... eta beste hainbat gauza ekarri ditugu gelara. Gure txoko zurian daude ikusgai. Guk dakiguna azaltzeko prest gaude. Etorri nahi bisita bat egitera?



3. mailakoak

Inauteriak 2013



Partzuergoa



HH





LH1-2



LH 3-4





LH5-LH6



DBH 1-2-3





DBH4



Aurkezleak



Gurasoak



Zuzendaritza





LH3

... eta horrela bizitzen gara...

LH 5. mailan elikagaiak eta giza gorputza lantzen ari gara.

Osasuntsu bizitzeko bost jatordu egitea aholkatzen dute adituek. Horietako hiru, garrantzitsuenak (gosaria, bazkaria eta afaria), mahaian egiten dira; beste biak, berriz, arinagoak dira (hamaiketakoa eta merienda) eta mahaian eseri gabe edo mahaitik urrunago egin daitezke.

Azken aipatu ditugun bi horietako bat egitea da unitate edo gai honen proiektua: hamaiketako ederra prestatzea.

Hamaiketakoa egiteko era askotako elikagaiek osatutako janariak aukeratu behar ditugu eta horiekin pintxoak eta postreak egingo ditugu. Ondoren, prestatutako janariaren errezetak idatziko ditugu eta modu horretara jarraibide-testuak landuko ditugu.

Egingo dugun postre horietako baten errezeta eskaintzen dizuegu eta 6 lagunentzako euskal pastela nola egin kontatuko dizuegu.

LH 5. maila



EUSKAL PASTELA

Lehenbizi jakin 40 minutu behar direla oreia prestatzeko eta 35 minutu pastela labean egiteko.

Osagai hauek behar dira.

Oreia egiteko behar dira:

- 300 g irin
- 200 g azukre
- 200 g gurin
- Arrautza 1 osoa eta 2 gorringo
- Limoi 1
- Koilaretxo bat (kaferako) legamia
- Gatza

Pastel-krema egiteko behar dira:

- Litro 1/4 esne
- 50 g irin
- 50 g azukre
- 2 arrautza gorringo eta 2 arrautza oso
- Bainila adar 1/2

Prestaketa:

Hasteko irina bol batera bota behar da eta zulo bat egin erdian. Gero, 2 arrautzaren gorringoak eta arrautza osoa erantsi (aurrez irabiatua) behar dira. Ondotik, legamia, azukrea, gatza, gurina (laukietan) eta limoi baten azala bota.

Jarraian guztia oratu behar da oreia leun geratzen den arte. Bola bat egin eta aldeaz aurretik irineztaturiko oihala baten gainean gutxienez bi orduz leku fresko batean utzi, Pastel-kremarako, esnea berotu bainila adar erdiarekin.

Bitartean, eltze batean azukrea, 2 arrautza gorringoak eta 2 arrautza osoak jarri eta egurrezko espatula batekin nahasi krema zuri gelditu arte. Gainetik irina bota barreiatu eta gatza eman.

Lortutako nahastura eltze batera bota eta oso su baxuan berotu, beti ere nahasiz, oreia pixka bat loditu arte. Eltzea surtatik kendu, baina krema nahasten jarraitu hoztu arte.

Bukatzeke molde sakon bat hartu. Barnealdea gurinaz igurtzi eta irineztatu. Oreia atera eta bitan zatitu, 1/3 eta 2/3. Zatik handiena arrabol batez luzatu eta moldean jarri, ertzetan burlet bat eginez. Krema hoztua moldera bota.

Segidan, geratzen den ore zatia hartu. Arrabolez luzatu eta kremaren gainean jarri estalki bat balitz bezala. Bi ore zatien ertzak "elkartzen" saiatu busti eta hatz muturrez estutuz.

Sardexka batekin postrearen gainazalean dekorazioak egin. Labean sartu (aurrez 180° gradutan berotuta) eta 30-35 minutu utzi labean egosten.

ON EGIN!



Odol-emaileen elkarteko enbista

Aurtengo ikasturtean 6. mailakoak giza gorputzaren gaia ikertzen eta lantzen aritu gara. Lan honetan ari ginen garai berean odol-emaileen elkarteko enbista izan dugu. Hiru arduradun hurbildu dira zer eratako elkartea den, nola antolatzen diren, zer dakigun berez eta zer jakin nahi dugun gurekin partekatuz.

Gela bakoitzarekin ordu eta erdiko saioak antolatu dira. Aurretik galdeketa bat bidali ziguten gure gurasoekin batetzeko. Odol-motak, odol-emailea izatea zer den, noizbait gure familian organoren bat norbaitek jaso edo eman duen...

Odola izan da gai nagusia eta esan beharra dago gure ikasgeletan batzuk odola hitzarekin eta odolarekin zerikusia duen edozerekin oso gaizki pasatzen dutela. Horrela sentitzen direnentzat frogatzea izan da, egia esan, baina denak egoerari aurre egiten saiatu garelako ezin ukatu.

Odol-emaileen elkartekoekin izan ondoren odolaren inguruan ezagutza asko gureganatu dugu:

- Lehen gizakiek animalien odolarekin paretetan margo-lanak egiten zituztela.
- Aurkikuntza handia izan zela historian zehar odolak zituen osagaiak aurkitzea eta konturatzeko odola elkarri eman zitekeela eta bizitza asko salbatu.
- Odol-mota bakarra ez dagoela, asko daudela: ZOR-TZI, hain zuten ere, A(+), A(-), B(+), B(-), AB(+), AB(-), O(+), O(-).
- Odola emateko baldintza batzuk bete behar direla: 18 urte eginak izatea, 50Kg pisua gutxienez izatea, eta osasuntsu egotea.
- Gizakiok 5 litro odol izaten dugula guztira. Eta odolustu daitekeela azkar, zauri bat ondo ez bada tapatzen.






- Odola ezin dela beste deusetik sortu, emanez baka-
rrik lor dezakegula.
- Odol-emaileen beharra dagoela gaixorik edo istripuz
daudenei laguntzeko.
- Odola "bankua" izeneko leku batean egunero eta
herriz herri jasotzen dela eta ondoren erietxeetara
eramaten dela.
- Odola ematerakoan litro erdi bat ematen dugula
gutxi gorabehera. Eta bukatutakoan hamaiketako
banatzen dutela berrindartzeko.
- Odola poltsa desberdinetan jasotzen dute, osagaika.
- O(-) taldekoak EMAILE unibertsalak direla eta edo-
nori eman diezaioketela.
- AB(+) taldekoak berriz, HARTZAILE unibertsalak
direla eta talde guztietatik jaso dezaketela.
- Egunean gure bihotzak 5000 litro ponpatzen dituela.
- Animalien odola eta pertsonen odola ez dela berdina.





Nerea Mendiburu
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Nur eta herensugearen tenplua

Egilea: Toti Martínez de Lezea

Marraskigilea: Juan Luis Landa

Argitaletxea: Erein

Urtea: 2009ko azaroa

IRITZIA ETA AHOLKUA

Asko gustatu zait, ez naiz aspertu irakurtzen eta emozioz egon naiz atea irekiko eta bukaera zer dagoen pentsatuz.

Nur-en liburuak gustuko badituzu, irakurtzea aholkatzen dizut.

ANIMATU ZAITEZ!

LABURPEN TENTATZAILEA

Nur-en 10. urtebetetzea da eta ospatzeko bere lagunekin Long Tang parkera joatea erabaki du.

Dibertitzen denbora pixka bat pasa eta gero, Guo Guo, lagunetako bat, galdu dela konturatzen dira. Bilatzeko talde txikiak egitea erabakitzen dute, baina Nur nekatu egiten da eta tren baten bagoian esertzen da lagunarekin.


Ustekabean trena martxan jartzen da, baina tunel erdian gelditu egiten da. Nur eta bere laguna iteera bilatzen hasen dira, baina bilatzen ari direla ate bat aurkitzen dute.

Sartu ondoren, labirinto batean daudela ohartzen dira.

- Nola irtengo dira hortik?
- Aurkituko al dute Guo Guo?
- Lagunek aurkituko al dituzte?



Iker Kortajarena
DBH 1



FITXA TEKNIKOA

Titulua: Urtziren diarioa

Idazlea: Antton Kazabon

Argitaletxea: Ibaizabal

Urtea: 2003

Ilustratzailea: Ima Mendiola

Saila: Gaztaro

IRITZIA ETA AHOLKUA

Asko gustatu zait kontakizun hau, gure gizartean gertatzen diren gauzak kontatzen dituelako eta entretenigarria delako.

Horregatik, irakurtzera gonbidatzen zaitut.

LABURPEN TENTATZAILEA

Urtzi amarekin bizi da. Berak oraindik ez daki ama eta biok bakarrik utzi zituen pertsonaia, aita, nor den. Amak esan dionez herrikoa da, gazteagoa... Urtzi irrikan dago jakiteko nor den pertsona hori, aita nor den, alegia. Eta hori jakin bitartean, nota txarrak aterako dituela dio. Baina, ama pista bat baino gehiago ematen hasi zaio bere jokabidearekin.

- Zer pista mota izango dira?
- Zein izango da aita hori?
- Nolakoa izango ote da?
- Azkenean jakingo al du Urtzik bere aita nor den?



Jon Garcia eta Gorka Relegi
DBH 4

Hiesa

Joseba Errekaldek, Harri Beltza elkarteko zuzendaria, 2012ko azaroaren 29an eginiko bisitan, HIESA-ri buruz hitz egin zigun DBH 4. mailako ikasleoi. Gai askoren artean, GIB birusa atzematea, ondorioak, arazoak eta bere esperientzia aurkeztu zizkigun.

Birusa hartzen da edo berarekin jaiotzen zara. Atzematea ez da erraza izaten, ez baita ezer sentitzen, baina GIBak antigorputzak hiltzen dituenenez, beste edozein birus hartzeko aukera gehiago daudela adierazi zuen. Horregatik prebentzioa oso garrantzi-

tsua da. Honez gain, HIESAren aurka egiteko zein bide hartu eta GIBduna zaren ala ez jakiteko zein pauso jarraitu behar diren azaldu zuen.

Azkenik, gai honen garrantziaz konturatzea eta informazioa edukitzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Beraz, urtero egin beharreko hitzaldia dela uste dugu ikasleok.

Eskerrik asko Joseba!

Zer egin genezake berotegi efektua murrizteko?

Berotegi efektuarengatik, klima aldaketa azkartzen ari da; beraz, neurriak hartu behar ditugu. Izan ere, mundua erabat aldatuko da neurriak hartzen ez baditugu. Aldaketa horietako batzuk jasaten hasiak gara, nahiz eta gu ez ohartu.

Nire iritziz, gu gara arazo honen errudunak, antzinatik gure asmakuntzekin CO2a kaleratzen dugu eta. Elementu honen metaketak berotegi efektua sortzen du.

Esan bezala, berotegi efektua atmosferako karbono dioxidoaren metaketarengatik sortzen da. Metaketa horrek ez dio beroari kanpora irteten uzten eta gure planetako tenperatura igotzen du. Ondorioz, klima aldaketa aurreratzen ari da. Gainera, IPCC erakundeak (Panel Internacional de Expertos en el Cambio Climático) esaten duenez, berotegi efektua gure atmosferari, klimari eta biodibertsitateari eragiten hasia da dagoeneko.

Industriarekin batera hasi zen kutsadura. Gainera, eskaera eta kontsumoa ikaragarri handitu ziren mundu mailan. Garraioa, deforestazioa eta nekazaritza ere izugarri handitu ziren eta jarduera hauek CO2a isurtzen dute atmosferara. Baina arazo hau mundu guztiarena denez, denok batera aurkitu behar dugu irtenbidea.


Lehenik eta behin, energiaren erabilera murrizten hasi beharko genuke, molekula kaltegarri horien metaketa saihesteko. Ideia aparta izango litzateke energia

berritagarri gehiago asmatu eta horiek gehiago erabiltzen hastea. Baina gaur egungo gizartean ekonomikoki oso garestia da. Izan ere, ehuneko laurogeia energia nuklearra, hau da, ez berritagarria, erabiltzen dugu. Beste hitz batzuetan, nire iritziz, gaur egun irtenbide irrealak da.

Etxean ere hainbat eratarik murriz daiteke karbono dioxidoaren isurketa. Adibidez, berogailua pizten dugunean, etxeko leihoak itxi beharko genituzke, berogailuak behar baino lan gehiago egin ez dezan. Gainera, hau eginez aurreztu egingo genuke. Esan nahi dudana da hainbat alde positibo dituela.

Hortaz, guk ere lagun dezakegu berotegi efektua murrizten. Etxetik kanpora ere saia gaitzke karbono dioxidoaren isurketa txikitzen. Adibidez, lanera, ikastolara edo edonora joan nahi badugu, gaur egun garraio publikoan mugitzeko aukera daukagu. Ulergarria da bidaia motzetarako errentagarriagoa izatea autoz bidaiatzea, eta baita erosoagoa ere. Baina ez badugu gure planetaren alde ezer egiten, nork egingo du?

Laburpen modura, esango nuke gure planeta jasaten ari den berotegi efektua handitu ez dadin hainbat neurri hartu behar ditugula, eta neurri horiek etxekoei ere aurrera atera beharko litzuketela. Izan ere, denok eman beharko genuke zertxobait, gutxi batzuek dena eman behar izan ez dezaten.



Leire Oaizola Yurga
DBH 4





Atez atekoa



Azken aldian pil-pilean dagoen gaia da zaborraren kudeaketarena. Metodo ezberdinak aipatzen dira zabortegeiek gainezka egin ez dezaten, batez ere, atez atekoarena eta erraustegiarena. Nahiz eta arrazoi ezberdinengatik (asko politikoak, gure ustez) erakunde askok atez atekoa gaitzetsi, guri irtenbiderik egokiena iruditzen zaigu.

Hasteko, kontuan izan behar da, orain arte inguru hauetan gehien erabiltzen zen 4 edukiontziren metodoarekin konparatuz, bikoitza baino gehiago birziklatzen dela. Adibidez, Oiartzunen, 4 edukiontziren sistemarekin %30 inguru birziklatzen zen; orain, berriz, atez atekoarekin, % 80tik gora.

Beste puntu garrantzitsu bat organikoa errefusetik bereiztearena dela uste dugu. Egia da hori bost edukiontzirekin ere lortzen dela, baina adi datu honi: Usurbilek, atez atekoarekin eta 6.000 biztanlerekin, bost edukiontzi dituzten Zumaiak, Zarautzek, Azpeitiak, Azkoitiak, Aretxabaletak eta Donostiako auzo den Amarak (88.000 biztanle) batera baino organiko gehiago biltzen du.

Bestetik, inor egunez nahastuz gero, edo hondakin mota bat baino gehiago ateraldi bakarrean ateraz gero, berea bildu gabe utzi eta gainerakoari ez dio eragiten. Hau da, biltzen den zaborra etxeka antolatua dagoenez, nahastu denarena ez biltzearekin nahikoa da.


Gainera, zabortegetan gastua murrizten da, hondakin guztietatik errefusa oso gutxi baita (%20 baino gutxiago). Horrela, eskulaneako gastuak gainerako metodoetan baino handiagoak izan arren, zabortegetako gastu murriztagoekin konpentsatzen da. Esate baterako, Hernanin, hilero 47.000€ aurrezten dira zabortege-gastuetan. Eta ez ahaztu organikoa (edo bertatik lortutako ongarria) saldu egiten dela, onura ekonomikoak lortuz.

Baina errauste plantarekin itsututa daudenek, esaten dute, atez atekoarekin ere erraustegia beharrezkoa izango dela, errefusari irtenbidea emateko. Guk uste, ez dabilzala zuzen. Lehenik, errefusa gutxi geratzen denez, eta hau ez denez kutsakorra, edozein lekutan biltegitatu daiteke. Gogoratu, baita ere, erraustegiak errautsa sortuko lukeela, eta hau toxikoa izango litzakeenez, biltegitatzeko zabortege espezifikoak beharko lirateke. Bukatzeko, egin nahi duten erraustegiaren tamainakoetan, bederen, behin martxan jarritz gero "eliku" egin behar da, eta atez atekoak ez duenez nahikoa hondakin birziklatu ezin sortzen, birziklagarriek ere bertan bukatuko lukete.

Askok entzuten da, bestalde, paisaia itsusten dutela zintzilikailu eta zabor-poltsek nahiz kuboek. Baina gure esperientziak aurkakoa dio. Gure herrian, Oiartzunen, bi urte beteko dira hondakinak horrela biltzen direnetik, eta ordutegi moldatuari esker, egunez ia ez dira nabaritu ere egiten (zutabeetan, gehienez ere, 20:00etatik goizaldera arte baino ez dira egoten poltsa edo kuboak).


Beraz, dakartzan onura guztiak kontuan hartuz, uste dugu gehiegizko zaborraren kudeaketarako metodorik onena atez atekoa dela (hondakinik ez sortzearen ondoren, jakina!), eta hondakinen kudeaketak guztion mentalizazioa eta inplikazioa eskatzen dituela.

Jokin Irastorza eta Peru Ruiz de Azua





Kolonia



Jaione Alkain

Oiartzoko 2. batxilleratoa



Juan José Cardona

DBH 3

Kolonia, gaztelaniaz Colombia, Erdialdeko Amerikan kokatuta dagoen estatua da. Euskal Herritik oso urruti irudikatzen badugu ere, hemen dira bi kazetari gazte hango berri ematen. Bata, Juan José Cardona, iazko ikasturtean handik Oiartzuna bizitzera etorritakoa da, eta ikastolako ikaslea. Bestea, Jaione Alkain, Oiartzoko ikaslea, duela hilabete batzuk turismoa eginez bertan izandakoa. Biek ere ikuspegi desberdinak azalduko dizkigute, bakoitzak bere bizipenetatik; eta elkarren artean aberasgarriak. Ea horrela guretzat ere Koloniak mapako zati txiki bat izatea hutsari uzten dion.

KOLONIA: HERRIALDE BATEN HISTORIA

Gutxiak dakite ezer asko Koloniari buruz, azken finean munduaren beste aldean dago eta zergatik jakin ezer hain urrun dagoen lurralde bati buruz? Egia esan, bidaiatzea gustatu behar zaizu horrelako herrialde batera joan ahal izateko, baina behin joanda eta behin beldurrak kanpoan utzirik, Koloniak eskaintzen dizun hoberenez gozatu dezakezu: sekulako oihanak, ametsetako kolorezko itsasoak, paradisu bateko paisaiak...

Egia esan, ez du oso fama ona gure lurraldeetan zehar Koloniak, baina esan beharra dago Amerikako

lurraldeetatik erosoenetakoa, abegitsuenetako eta kulturadunenetakoa dela; bertako jendearen bihotz onak, sentimenduak, bizi-pozak... ez dute parekorik eta hori asko sufritutako herrialde batean baino ezin daiteke ikusi. Kolonia bere errautsetatik berpiztu dela esan daiteke, gaur egun beste kolore bat duela, aurrera ateratzeko ahalegina egin nahi duela eta ziur nago hori guztia lortuko duela.

Cartagena de Indias bezalako hiri batean historian zehar galdu zaitezke, duela lau mendeetako hiri bat aurki dezakezu, bertako sekretuak eta misterioak berriro ere azaldu. Tayrona parkean benetako oiha-nean gal zaitezke, benetako Kolonia nolakoa den ulertu, hango jendea nola bizi zen sentitu. Edo





nahiago baduzu, bere itsasoetako ur miste-riotsuei begira egon, seguruenik kolore urdin hartan ere magia aurkitu baitezakezu. Herrialde honen benetako bizitza ezagutu nahi baduzu lurralde hauek aberats egiten dituen Kolonbiako kafearen ardatzean barrena gal zaitezke, bertako jende xumee-naren laguntzaz eta haien eguneroko lan gogorra nolakoa den ikasiz. Eta lan xumee-nen artean meatzariak lan-baldintza gogo-rrenetan egiten dutena ere aipatu beharra dago, munduko esmeraldarik ederrenak eta ikusgarrienak atera ahal izateko. Eta beste-rik ez bada, Karibeko ilunabarrei begira geratu, zeruan koloreak nola aldatzen diren ikusten, une batez dena ahaztuz eta momentu magiko batez disfrutatuz.



Milaka aukera dauzka herrialde honek, milaka aukera Kolonbiako hoberenaz gozatu ahal izateko eta egun batzuetan zehar benetako munduaz eta eguneroko bizitzaz ahazteko eta magiazkoa dirudien beste mundu batean sartu ahal izateko.

Jaione Alkain.



Yo nací en Tuluá, una ciudad del centro de Colombia, en un barrio llamado Progresar; ahí he vivido durante 14 años. En este barrio, como en casi todos los de Colombia, la gente es muy agradable y se ayudan entre todos. Es un barrio muy unido, siempre estás en contacto con tus vecinos, a diferencia de aquí, que la gente es más independiente.

El colegio donde estudiaba es muy grande. En cada clase había unos cuarenta alumnos, no como en mi clase de Haurtzaro, donde somos 18. Allí todos los estudiantes tienen el mismo uniforme y el horario es sólo por las mañanas.

Los ratos libres en Colombia son muy divertidos. Siempre hace calor y puedes ir a la piscina o al río con tus amigos. También quedas para ir a la casa de un amigo o para jugar a fútbol con tu cuadrilla. Debido al tiempo, la moda o forma de vestir siempre es la misma, una moda veraniega: pantalones cortos y niqui.

Colombia se caracteriza por su música y sus bailes. La música típica es la cumbia y la salsa. Éstas son las músicas que acompañan las fiestas más grandes e importantes de Colombia, los Carnavales. A los colombianos, como a todos los latinos, nos gusta mucho la fiesta, y somos los mejores bailando salsa.

Se puede decir que lo mejor de Colombia es nuestra gente, siempre dispuesta a echarte una mano, sobre todo al turista. Los colombianos procuramos que el turista se sienta como en su casa. Nunca le dejamos solo y siempre lo pasa bien con nosotros, aunque no haya mucho qué hacer.

Desde que he venido a Oiartzun lo que más echo de menos son mis amigos. Con ellos siempre estaba divirtiéndome y lo pasaba muy bien. Aquí estoy muchas veces solo, porque la gente y la cultura de aquí no son las mismas que las que hace un año dejé en Colombia.

Si quieres conocer más mi tierra, acércate a Colombia.

JUAN JOSÉ CARDONA
DBH 3A



Mikel Laboa



Eider Tome
DBH 3



Ekain Altzerdi
DBH 3



Izaro Idarreta
DBH 3



Lerraitz Ekarte
DBH 3

Donostian jaio zen 1934ko ekainaren 15ean eta Dobertan hil zen 2008ko abenduaren 1an.

Etxean izugarrizko zaletasuna zuten kantatzera, aita "La Constancia" bandako musikaria zen eta ama herriko koroan abeslari.

Aita, EAJ-ko kontzejala zen Donostian eta Bordelera erbesteratu zuten. Hori dela eta, Mikel, ama eta anai-arrebak Bizkaiko baserri batera joan ziren bizitzera, Lekeitioko auzo batera. Han hilabete batzuk igaro zituzten. Hilabete horietan, anaietako bat (Andoni) hil zen gaitz baten ondorioz 8-9 urte zituelarik.

Bertan bizi zela, Gernika bonbardatu zuten 1937. urtean eta, Mikelek esaten duenez, nahiz eta ez oso ongi gogoratu, 3 urte baitzituen, hegazkinak pasatzen ari zirela, jendeak eskuarekin agurtzen zituen aldekoak zirela pentsatuz, baina oker zeuden eta hegazkin horietatik bonbak erortzen hasi ziren. Hura zen iskanbila, hura!

Hori guztia gertatu zenean oso txikia zen Mikel, baina etxean askotan hitz egiten zuten gertakari hartaz.

Denbora pasa ostean, herrira itzuli ziren bizitzera, Donostiara, hain zuzen. Garai hartan gerra amaitutzat ematen zuten arren, jendea fusilatzen jarraitzen

zuten. Hori gutxi balitz, kalean ezin zen euskaraz hitz egin, ezin zen ikurrinik atera, Euskal Herriarekin zerikusia zuen edozer gaizkitzat hartzen zuten eta mendeku bezala, hil ere egiten zuten jendea.

Espainolek "hableustedcristiano" esaten zieten euskaldunei eta horren guztiaren ondorioz, Mikelek eus-kara galdu zuen.

Marianistetan egin zuen batxilergoa eta bertan Mari Sol Bastida ezagutu zuen, etorkizunean emaztea izango zena.

Batxilergoa amaituta, medikuntza ikastea erabaki zuen, eta horrek Donostiatik kanpo joatera behartu zuen. Lehenik Madrilén hasi zen, ondoren Iruñean (bertan berreskuratu zuen euskara) eta azkenik Zaragozan, han eman zuen bere lehenengo kontzertua.

Zaragozan bukatu zituen bere ikasketak, eta bertatik Bartzelonara joan zen Neuropsikiatria espezialitatea egitera; han, lanean hasi zen 1964. urteko otsailean, Santa Creu i Sant Pau ospitalean.

Katalunian Nova Cançó eta Els Setze Jutges mugimenduekin egin zuen topo. Horietako partaide askorekin harremana egin zuen.





1955 eta 1956. urteetan lagun batek Bordeletik Atahualpa Yupanqui Hego Ameriketako abeslariaren diskoa ekarri zion; independentzia eta horrelako gaiez hitz egiten zuen. Disko horrek inspiratu zuen Mikel.

Nahiz eta horrelako diskoak entzutea debekatuta egon, tankerako diskoak erostera joan zen Frantziara; horietako batzuen artean Georges Brassensena. Mikelen iritziz, behin entzun, eta gehiagotan entzuteko gogoia sartzen duten horietakoa zen.

Mikeli, La Boa (sugea) deitzen zioten.

Hurrengo urteak Donostia etaartzelona artean eman zituen. Euskal Herriko egonaldietan, Katallunian ezagututako mugimenduen antzeko zerbait sortzeko ideia zerabilen. Ordurako kantuan hasiak ziren Benito Lertxundi eta Lourdes Iriondo, eta haiekin harremanetan jarri zen. Horiez gain, Jose Antton Artze, Jose Angel Irigarai, Julen Lekuona, Xabier Lete, Jose Antonio Villar eta beste artista batzuekin hasi zen elkartzen Kursaalera etxabea. Ez Dok Amairu izango zena mamitzen hasi ziren.

Iruñean, berak eta bere lagun batek Georges Brassensena kantak abesten zituzten, erdi ingelesez, erdi frantsesez.

1964ko abuztuan, Donostian ezkondu zen Mari Solekin. Urtebetez bertan bizi izan ziren eta bitartean Donostiako ospitalean lanean jardun zuen.

Baionan, 1964. urte bukaeran grabatu zuen bere lehenengo diskoa, Azken.

65eko udaberrian hasi zen lehen pausoak ematen talde kontzeptu hori aurrera eramateko (Ez dok Amairu). Udarari, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo eta hirurok pintore baten etxera joan eta Joxe Antonio Artzerekin topo egin eta hura beraiei lanera elkartu zen.

Jorge Oteizari ere proposatu zion talde kontzeptu hura. Oteizak segituan asmatu zuen taldearen izena: Ez dok Amairu. 13a zenbaki superstizioso delako, eta malefizio horren aurka.

Zumetak egiten zituen diskoen azalak.

Taldearen helburua zen elkartuta bana-bana baino indar gehiago edukitzea.

Bidekidekaria da Mikelek urtean zehar eman zituen kontzertuen izena: bakarrik abesten, Artze anaiak txalaparta... ikus-entzunezko emanaldiak ziren Ikimilikiliklik-barruan.


1975. urtean Franco hil zen eta 1976. urtean egin zen lehen euskal kontzertua.

Laboak bere kontzertuetako bati Komunikazioen inkomunikazioak izena jarri zion.

Mikelek abesti asko eta asko idatzi eta abestu zituen. Horien artean:

- "Txoriak txori" (Joxean Artzeren hitzak eta Mikelek abestu)
- Izarren hautsa (Xabier Leteren hitzak eta Mikelek abestu)
- Gernika
- Oi Pello Pello!
- Egun da Santimamiña

...



Ruper Ordorika





Goiatz Labandibar:

Trenaren hotsatik, liburuko hitzen mundura.

Goiatz Labandibar, kazetari eta idazle oiantzuarra literatur irakurleak tren magikoan ibilarazteko prest da. Oiantzongo herritik igarotzen den trenak errail estuak omen ditu, topo izenarekin ezaguna. Baina Goiatzek hartu duen trenak badirudi mugarik ez duela. Bidaia 2011ko udazkenean hasi zuen. Orduan Berria egunkarian horrela irakurri genuen: “*Goiatz Labandibarrek irabazi du lgartza beka, 'Interrail' proiektuagatik*”. Eta egun hauetan proiektua gauzatu, Goiatzen liburua argitaratu da. Okasioa ezin galdu, eta berarengana hurbildu gara solasaldia izatera.

TXINPART.- Lehenik eta behin zorionak, Goiatz. “Interrail” izen sujerentea izan daiteke gazte batentzat. Zertan datza proiektua?

Eskerrik asko. Egia esan, Interrail proiektuaren izena izan da. Liburuak ez du izen hori. Lgartza lehiaketara proiektua aurkeztu nuenean jarri nion izenburu hori, zerbait jarri behar nuelako. Orduan, hiru ipuin baino ez nituen idatziak oraindik. Interrail izenarekin aurkeztu nuen proiektua istorio guztietan tren-geltokiek garrantzia berezia dutelako, esanahiren bat. Eta istorioak gertatzen diren hirietatik, hain zuzen ere, lagun batekin Interrail bidaia egin nuenean pasatu ginelako. Baina proiektua bukatutakoan, ez zuen zentzurik izenburu hori mantentzeak. Geltokiak edo Helduta entzuteko abestiak da liburuen izenburua, argitaratu den honetan.

T.- Liburuan zentratuta, nolakoak dira zure ipuinen protagonistak?

Oso ezberdinak dira euren artean. Ipuinek euren artean ez dute loturarik, eta protagonistek ezta ere. Badaude adinekoak, gazteak, emakumeak, gizonak, rugby jokalaria, ikasleak, musikazaleak, hiltzaileak, maiteminduak, haserre daudenak...

T.- Nolako istorioak bizi dituzte protagonista horiek?

Bizitzen dituzten istorioek ere ez dute zerikusirik euren artean: lagun mina hil ondoren egin duenaren arrazoiak ematen dituen hiltzailea; jaioterrira itzuli nahi ez duen baten bueltako bidaia; errutinak harrapatutako bikote heldu baten bizimodua; bere burua aurkitzen duen ikasle baten kontuak; gazetako maitasun batekin berriz topatu den adineko emakume bat; aske iza-teari beldurra dion baten bizitza...

T.- Gaur egungo krisiarekin liburuen argitalpenak eta salmentak ere asko jeitsi dira. Ausardia behar al da liburu bat argitaratzeko?

Hau, akaso, argitaratzaileek eta lgartza saria ekonomikoki janzten dutenek erantzun beharko lukete. Niri, idazle bezala, ez zait hainbeste axola zenbat salduko den. Baizik eta irakurtzen dutenek gozatzea.

T.- Literatur zale eta idazle plantan aspaldi ezagutu zintugun, Haurtzaroko ikasle zinen garaietatik. Orduan ere sariak jasotzen zenituen, eta ez euskaraz bakarrik. Gogoan al dituzu sari guztiak?

Buruz, akaso, guztiez ez naiz gogoratzen. Baina apuntatuak ditut etxean. Hala ere, euskara ez den hizkuntza batean behin baino ez dut irabazi sari bat, Barzelonako lehiaketa batean.

T.- Idazteko sormena ekarri edo garatu egiten da?

Ba ez dakit... Akaso badu zerbait norberak eduki behar duena. Gelan lantzen genituen idazlanak, narrazioak, irakurzaletasuna... Baina guztiok ez ditugu berdin barneratu zaletasun horiek eta garatu —eta berdin beste gauza batzuekin, izan daiteke kirola, matematika...-. Niri ttiki-ttikitatik gustatu izan zait ipuinak entzutea, eta irakurtzea —batez ere-. Umetatik idatzi izan dut, asko, eta urte hauetan guztietan eboluzionatuko zen nire idazteko eta sortzeko modua ere. Baina neronek ere izan ditut fikzioa oso gutxi idatzi dudun urteak —unibertsitate garaian apenas idatzi nuen deus-.

T.- Zure izena Interneten jartzerakoan gaztea izanik eskarmentu handikoa azaltzen zara: Hitza-ko kazetaria izana, Oiantzongo Udaleko komunikazio arduraduna, idazlea... Zein da zure gustuko ofizioa?

Kazetaria naiz ikasketaz eta lanbidez. Eta asko gustatzen zait mundu hori. Beti herriarekin lotura handia izan duen kazetari lanetan aritu izan naiz, bai Hitzan eta bai orain, udaletxean, eta egia esan, oso gauza



eta pertsona interesgarriak ezagutu eta ikasteko aukera izan dut. Uste dut ia denok badugula zerbait interesgarria kontatzeko. Nire ibilbideak hori erakutsi dit. Oraindik ez dut nire burua "idazle" kontsideratzen... Liburu hau argitaratzeko aukera izan dut, baina nork daki aurrerantzean zer egingo dudan.

T.- Ipuin kontalari moduan ikusiko al zenuke zure burua?

Egia esan, ez. Ez dut uste narratzaile ona naizenik. Eta jendaurrean irakurtzen ere oso txarra naiz. Ez dakit erritmoa kontrolatzen... Ipuin kontalari izateko idaztea baino garrantzitsuagoa da ahotsa, keinuak... lantzea. Eta oraingoz behintzat, ez dut nire burua mundu horretan ikusten.

T.- Hori bai, zure ibilbide guztian euskararekin lokera handia izan duzu. Zein ekarpen egin nahiko zenuke zure obrarekin euskarari eta, aldi berean, euskal literaturari?

Euskaraz idaztea, niretzako, zerbait naturala da. Euskalduna naiz eta euskaraz bizi naiz. Hoberen espresatzen naizen hizkuntza da hau, "goiatzen" naizen hizkuntza da. Euskaraz irakurtzen dutenei ipuin hauek irakurtzen ongi pasaraztea gustatuko litzaidake. Eta euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duen baten bat animatzen bada, dagoeneko euskarari ekarpena egin diodala uste dut. Saria irabazi nuenean, ezagun batek hala esan zidan: "Euskaraz irakurriko dudak lehendabiziko liburua izango da zurea", eta egia esan, poztu nintzen. Agian honen ondoren euskaraz gehiago irakurtzera animatuko da. Gauza txukunak ere egiten dira euskaraz, nahiz eta egia den bazterrean ditugun makro-hizkuntzetan aukera literarioa handiagoa dela –sortzaileak, itzulpenak...-. Handiak ttikia irensten du beti, eta euskaldunak ez badugu euskal literatura kontsumitzen, jango gaituzte.

T.- Pentsatu al duzu hurrengo bidaia, literarioa ala turistikoa, nora izango den?

Bidaia turistikoa, ez. Toki asko dauzkat oraindik ezagutzeko eta gustura joango nintzatekeenak, baina ez dut deus zehaztua oraingoz. Eta bidaia literarioa... liburua-aren aurkezpena eta hori guztia nahikoa izan da oraintxe bertan! Erabat berria izan eta izaten ari da hau niretzat, munduaren beste aldean aterrizatzea bezalakoa.

T.- Ale honetan zure gelakidea izan zen Jexux Olaziregi elkarrizketatu dugu. Bera ere euskararen esparruan ari da, kasu honetan trenez ez, korrika baizik. Zer esango zenioke Jexuxi?

Badakit lanpetuta dabilela Korrikarekin. Txinpart ateratzen denean azkeneko txanpan egongo dira. Dena primeran ateratzea opa diot. Eta jende askok egingo dugula bat AEKren Korrikarekin, Andoaindik Baionara doan bitartean eta gero ez zaigula ahaztuko zergatik aritu garen goizaldean korrika... Gelakideak izan gara ikastolako urte guztietan eta gerora ere mantentzen dugu harremana.

T.- Bukatzeko, zuk ederki ezagutzen duzu Oiartzungo herrian euskara sustatzeko egiten den giza ekimena. Azkenaldian, oiartzuera indartu nahian. Zein mezu bidali nahi diezu horretan ari diren guztiei?

Jarrai dezatela horretan. Uste dut euskalkiak ditugunok puntu bat dugula alde euskaraz bizitzeko, euskara naturala dugulako, bizia. Oiartzunen geroz eta gipuzkerago hitz egiten dugula iruditzen zait, eta pena da. Oso euskara polita dugu eta mantentzeko egiten diren ahaleginak ederrak iruditzen zaizkit. Uste dut euskara batua ere beharrezkoa dela, eta bakoitzak duela bere esparrua, baina kalean Oiartzunen, oiartzueraz aritu behar genuke.

T.- Bidaia bukatzean atsedena behar izaten da. Merezi duzun deskantsua har dezazula, Hemen, ikastolako liburutegiko apaletan ipuin-liburu berri bat eskura izango dugu. Eskerrik asko!

Zuei. Eta eskerrik asko!



Jexux Olaziregi

Artikulu hau irakurtzen ari zaretenerako, makina bat korri egin dute euskaltzale askok eta askok, tartean zue-tako batzuek. Baina gure inguruan korri egitea oso erraza bada ere, bide gorrira joan eta hankak martxan jartzea besterik behar ez baita, aurten beste KORRIKA egitea dagokigu: euskararen aldeko KORRIKA.

Bi urtetik behin pozik hartzen dugu ekitaldia. Aurten 18.a, Andoaindik Baionara Euskal Herriko milaka txo-koetan euskara gure hizkuntza dela errebindikatu.

Oarsoaldean ekimena antolatzen, buru belarri, Jexux Olaziregi Bagues ari da, Haurtzaroko ikasle ohia, eta berarengana jo dugu elkarrizketa egitera.

TXINPART.- Lehenik eta behin, nondik nora zu lan honetan?

Azaroa inguruan AEK-ko irakasle izateko beharrezkoa den Glotodidaktika ikastaroa amaitu nuen eta, Oreretako euskaltegian ordezkapen pare bat zeudenez, horiek eskaini zizkidaten. Ordezkapenez gain, Korrikako eskualdeko arduraduna falta zen eta lan hori ere eskaini zidan AEK-k.



T.- Zer da zonako koordinatzaileak egin behar izaten duena?

Korrika antolatzeko herrietan Korrika Batzordeak osatzen dira, horiek dira benetan Korrika aurrera ateratzen dutenak. Nire lana Oarsoaldeko herrietan batzordeak koordinatzea da, eta horiek nahiz Gipuzkoako Batzordearen arteko zubi lana egitea da. Bestetik, Korrikaren aitzakian, Korrika Kulturala egiten da eta nazio mailako ekitaldirik eskualdean izanez gero, nik arduratu behar dut antolaketaz. Azkenik, Korrika ofizialak eskualdean izango duen ibilbidea eta eskualdeko ekonomi gestioak ere nire gain daude.

T.- Korrika aritzen garenean, erlojuarekin aurka ibili behar izaten dugu. Ba al du zure lanak horrelako estres punturik?

Egia esan bai, eta normala da. Leku guztietan gauzak atzorako eginak behar badute, eta Korrikan oraindik lehenago. Baina Korrikako arduradunek askotan ez dira jabetzen langile guztien abiadura ez dela bera: irakasleentzat Korrika lan-karga gehigarria da, beste lehentasun batzuk dituzte; Korrikan buru-belarri lanean ari direnak, berriz, hori dute lehentasun ia bakarra eta horien erritmoa azkarragoa da. Ondorioz, aurretik lortu behar den guztiaren abiadura asko azkartzen da, ia estreseraino ailegatuz.

T.- Korrika 18k dio: Eman euskara elkarri dio, euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako. Baina belarria jartzerakoan Oarsoaldean euskara ez dagoela hain zabalduta frogatzen dugu. Zertan lagun dezake Korrikak hori aldatzen?

Korrika, euskalgintzarentzat zehazki eta Euskal Herriarentzat orokorrean, estimulu bat da, euskararen aldeko komunikazio kanpainarik handiena da. Oarsoaldea ez dago estimulu horretatik at. Korrikak eskualdean dauden hainbat eragile euskara alorrean lan egitera aktibatzen ditu eta lasterketa erraldoi horren aitzakiapean, izugarrizko ekarpenak jasotzen ditu euskarak.

T.- Jexux, zuk ikasketak Gasteizen egin dituzu. Han giro euskalduna topatu al zenuen?

Gasteizen bizi nuen egoera pixka bat distortsionatua zegoen. Bertan, oro har, ez dago giro euskaldunik, baina ni euskaldun giroan ibiltzen nintzen. Izan ere, gure fakultatea (Letren Fakultatea) nahiko euskalduna zen, uste dut, fakultaterik euskaldunena zela; eta



ostegunetan Alde Zaharrean ibiltzen nintzenean ere, giro euskaldunean ibiltzen nintzen. Hala ere, adierazle bat badaukat Gasteizen gaztelania hemen baino dezente gehiago erabiltzen dela argudiatzeko: gaztelaniaz ahoz komunikatzen, nolabait, bertan ikasi bainuen.

T.- Hara joan aurretik, haurtzaroa Haurtzaron pasa zenuen. Zer duzu gogoan orduko garaitik?

Haurtzarotik oroitzapen oso onak ditut, eta ez da ongi geratzeagatik. Oroitzapen on horiek nire lagunengatik eta beraiekin igaro nituen "abenturengatik" dira batez ere, 16 urte arte nire koadrilakoekin ibili bainintzen. Ondoren, norberak bere bidea hartu eta koadrilan jarraitu arren, bakoitzak bere ikasketak egiten ditu eta bere bizitza bizitu. Horrela lehen egunero elkartzen zinen jendearekin, orain, berriz, astean behin elkartuz gero, ongi. Hala ere, nik zorte handia daukat, txikitatik nituen lagunak eta koadrila gaur egun mantentzen baititut.

T.- Korrika 18ko mezuak euskara euskaldunen arteko kohesiorako lehengaia eta tresna dela dio. Eta elkarbizitzaz ere hitz egiten du. Ideia horiek berriak dira. Garrantzitsuak al dira? Eta, nola zabaldu behar ditugu?

Oso garrantzitsuak direla iruditzen zait. Gainera euskara irakasten hasi naizenetik fenomeno batez ohartu naiz, haurrek euskararen daukaten eragina. Zoritzarrez eta bizi dugun egoera soziopolitikoagatik batez ere, gaur egun ikastolan dauden haur askoren gurasoek edota aitona-amonek ez dakite euskaraz. Haur horiek ikastolan hastearekin batera bere senideak euskarara hurbiltzen hasten dira eta kasu askotan euskaraz alfabetatzen hasten dira, euskaltegietan, mintza-lagunetan... izena ematen hasten dira.

T.- Oiartzunen zentratuta, zer dagokigu euskalgintzan ari garenoi?

Oiartzun, euskarari dagokionez herri berezia da. Batetik, inguruan euskararen presentzia eskasa dagoen bi herri oso handi daude (Irun eta Orereta). Bestetik, Oiartzun oso herri euskalduna da, UEMA sarean dago eta herriko instituzioek euskararen sustapenean izugarritzko lana egiten dute. Horregatik, nahiz eta Oiartzun oso euskalduna izan, euskararen gehiago inbertitu behar dugu, Euskal Herriko gainontzeko herrientzat eredugarri izan behar dugu. Hori da gure erronka.

T.- Andoainen hasi, Baionan bukatu, hegotik iparrera. Non dago euskararen iparra?

Udalen gaindiko instituzioek zeresan handia dute auzi horretan. Dirudienaz Gipuzkoako Aldundia pauso egokiak ematen ari da norabide horretan.



Hala ere, oraindik zeregin handia dago egiteko, bai euskara sustatzeko araudietan bai euskalgintzari orokorrean eta alfabetatze lanetan gabiltzanei konkrituki ematen diren diru-laguntzetan. AEKren helburua doakotasuna da, ikasleak euskara ikasteko ezer ere ez ordaintzea, alegia. Hori lortu bitartean, Korrikak duen konponente ekonomikoa behar-beharrezkoa izango da AEKrentzat, diru horri esker euskaltegietan, gau eskoletan, mintza-lagun saioetan... ikasleek ordaindu behar duten matrikula merkeagoa izango baita.

T.- Zure etorkizuna ere euskararekin lotuta ikusten al duzu?

Epe motzera bai. Korrika ardura edukitzeaz gain, Oretako euskaltegian euskara klaseak ematen dizkiot jubilatutako talde bati. Klase horiek amaitzean, auskalo; krisiak eragina izango du, noski (klaseak aterako diren ala ez hurrengo urtean jakingo da). Hala ere, nire etorkizuna euskarari edota herrigintzari lotuta ikusten dut.

T.- Ale honetan zure gelakidea izan zen Goiatz Labandibarren elkarrizketa dugu. Zer esango zenioke Goiatzi?

Gaur egun oraindik harremana mantentzen dut beraiekin. Hitzan lan egiten zuenean erreferente bilakatu zela esan daiteke eta gaur egun izugarritzko lana egiten du udaletxean. Bere lanaren ondorioz, Udalak komunikazio tresna garrantzitsuak dauzka (aski prexko, gotti-betti...). Horrez gain, Igartza saria irabazi zuen, "Interrail" liburua argitaratzea ahalbideratuko diona. Ez daukat ezer berezirik esateko, "curriculum" hori bere lan onaren adierazle besterik ez da, bide horretan jarraitzeko besterik ez nioke esango.

T.- Bukatzeko, nondik jaso duzu gizartegintzan aritzeko gogoia edo motibazioa?

Gizartegintzan baino herrigintzan nabil aspalditik. Euskal Herriak zerbait ona baldin badu, herriak herriarentzat egindako lana da, hori da herri honek aurrera egiteko duen bihotza. Korrika horren adierazle garrantzitsuenetakoa da, auzolan nazional izugarria da. Mila esker, Jexux, eta lasterketak amaiera ona izan dezala!



Garbiñe Merino

Garbiñe Merino pedagogo da, eta azkeneko urteetan Haurtzaroko DBHko ikasleekin hezkuntza afektibo sexualeko jardunaldiak ematen ari da. Neska-mutilen heltze prozesuan gaia garrantzitsua, eta helduon interesa ere handia denez, Garbiñerekin hainbat alderdiri buruz hitz egin nahi izan dugu.

Txinpart.- Aipatu dugun bezala, jarduera hauetan esperimentzia handikoa zara. Noiztik gazteekin lanean?

Justu urtarrilean 23 urte egin ditugu, 1990an Logroñon hasi nintzen. Han bi urte egin nituen eta gero hona itzuli nintzen. Urte batzuk badira, eta batzuetan, fase hori bukatu behar dudala pentsatzen hasia naiz.

T.- Gaian sartzeko, espezialista zaren gaiari buruz galdetuko dizugu. Sexualitatea, zer ulertu behar dugu hitz horrekin?

Sexualitatea bizipen bat da, gurekin dagoena, gurekin jaio eta hil arte dagoena, eta garatu egiten da. Adierazpen desberdinak ditu, adin bakoitzaren arabera, baita hezkuntzaren eta kulturaren arabera ere, baina azken finean gure bizitzan dago. Hori da nik DBHko ikasleekin lana egiten dudanean, adierazten saiatzen naizena.

T.- Eta sexua eta generoa, gauza bera al dira?

Beno, ez, niretzat sexua egitura da, norberari egitura ematen diguna, bai gizonezkoena, bai emakumezkoena. Eta generoa, gehiago da rol sexualari dagokiona: espero dena emakume edo gizon bezala gertatzea, izatea edo egitea.

Egia da, gizartean, sexua hitza ez dela ongi erabiltzen. Askotan gure ikasleak sexua hitza entzuten dutenean, berehala sarketa-rekin edo erlazionatzen dutela. Baina sexua eitura da.

T.- Hezkuntza afektibo sexualaz ari gara. Zer jasotzen du kontzeptu horrek?

H.A.S. oinarritzen da informazioa lantzean eta baita ere, eta batez ere, jarreretan. Norberak dauzkagun jarrerak sexuarekin: nola gerturatzen garen halako bizipenenera eta horrelakoe-tan zein emozio mugitzen zaigun. Niretzat hori da garrantzitsue-na, eta hori lantzen da hezkuntza afektiboaren helburu bezala. Informazioa, bai, baina batez ere, jarreraren lanketa, esate batera-ko: nola nagoen ni bizipen horren aurrean, nola sentitzen naizen, zer behar dudan, zer gustatzen zaidan... Azken batez, jarrerak.

T.- Gurasoek seme-alabekin gaia lantzea pentsatzerakoan, haien kezka zera izaten da: zer esan, zer ez esan... Zein da horri buruz gurasoei emango zeniekeen aholkua?

Nik beti esaten diet gurasoei edukia baino jarrera dela garrantzitsua. Nire esperientzietatik esaten dut, badaude guraso-ak eduki aldetik asko ez dakitenak, baina haien jarrera lasaia, gertukoa, entzuteko prest denean seme-alabentzat askoz ere lagungarriagoak izan dira, asko zekitenak baino. Pentsatzen dugu informazioarekin hezituko dugula, eta askoz gehiago hezten dugu gure jarrerekin.

T.- Gure ikastolan, gaiaren lanketa aberasteko espezialis- tekin jarduerak antolatzen dira. Zein abantaila ikusten dizkiozu zuk horrela interbentzioak egiteari?



Ikasleek anonimatoa edo nor den ez jakitea sentitzen dute, eta era berean, askatasun handiagoa edozein galdera egiteko. Ni pertsona heldu bezala bizi naute, baina ez kontrolatzailea (ez naiz irakaslea, ez gurasoa; ez ditut notak jartzen, ez daukat zuzenean beren gurasoei harremanik), eta horrek guztiak asko laguntzen die askatzeraz.

Bestalde, kanpoko norbait etortzean, horrek proposatzen dituen jarduerak hobeto onartzen dira. Lanketarako dinamikak planteatzerakoan, elkar ezagutzeko, ea., batzuetan, tira! kosta egiten da, baina ni kanpoko naizenez, konfiantza eskaintzen didate. Nahiz eta irakasleak ikaslearekin harreman oso onak izan, kanpoko eta aditua izateak ikasleei galdera egitea errazten die.

T.- Lanketa honetan lortzen al da geletan konfiantzazko giroa?

Bai, konfiantza giroa lortzen da. Hala ere, batzuetan ikasleen artean barne dinamika zaila da, edozein dela ere gaia, eta horrelako kasuetan, momentu onenean ez badaude, gai afektiboak lantzea ez da erraza izaten. Baina, orokorrean, bai. Gainera, kontuan hartu gauza batzuk ozenki egiten direla eta beste batzuk bakarka. Horrela, denok askatzea ahalbidertzen da.

T.- Gizartea, kultura belaunaldiz belaunaldi asko aldatu da. Gaur egungo 14-16 urteko gaztetxoek sexualitateaz dituzten kezkak ere aldatu al dira?

Ez da hainbeste aldatu azkeneko urteetan. Egia da, beraiek informazioa gero eta lehenago maneiatzen dutela, hau da, adin txikiagoarekin erabiltzen dute. Lehen askoz ere zailagoa zen informazioa eskuratzea. Erabiltzen dituzten hitzak entzutean harritu egiten gara, baina horrek ez du esan nahi maila handi- goa dutenik, ze maneiatzen duten informazioa ez dute barne- -barnean ongi kokatzen. Beraz, alderdi horretatik, ez ditugu hainbeste aurrerapauso eman.

Azken finean, nerabeak nerabeak dira, hortaz ez dira hainbeste aldatu: bizipenak, beldurrak, interesak... oso antzekoak dira.

T.- Neskak eta mutilak, gaia elkarrekin lantzea komenigarria da?

Bai, aberasgarria, nik ez nituzke banatuko, nahiz eta lanean, batzuetan, bereizi egin behar diren zeintzuk diren mutilen kez- kak eta zeintzuk neskenak. Gainera, guk ez dakigu gure gaz- tetxoak zein orientazio sexualeko neska-mutilak diren. Pertso- na desberdinen bizipenak, kuriositateak, beharrak... entzutea oso aberasgarria da, nahiz neska nahiz mutila izan.

T.- Irakasle edo hezitzaileak garenetik, zein izan behar du gure jarrera ikasleen sexualitatea modu positiboan bultzatzeko?

Bakoitzak toki bat dugu, eta gurasoen kasuan esan bezala, eduki asko jarri beharrean, zerbait gertatzen denean, guk errespetuz entzutea, ulertzen saiatzea, gaia bere tokian jar- tzea... da garrantzitsua.

Elkarriketa hau guztiontzat lagungarria izango da. Mila esker, Garbiñe.



Esperientzia eskola

Ikastolako goiko solairuan, asteazken goizetan ikasle bereziak ikusten ditugu pasilloan, ohikoak diren DBHko ikasleen artean. "Esperientzia Eskola" proiektuan parte hartzen ari diren ikasleak dira, eta aurtengoa bigarren urtea dute.

Taldea gidatzen Garazi Elortza eta Ainhoa Gardoki ditugu. Haiengana jo dugu esperientziaren berri eskatuz.

T.- Zer da Esperientzia Eskola proiektua?

Elkarren arteko trukaketarako gune irekia izatea nahi dugu, adinekoek baliabide eskuratzeko eta era guztieta-ko esperientziak trukatzeko eta halaber Kultura eta hezkuntza arloko esparruak jorratu ondoren gizartean eman-kortasunez eragiteko aukera izan dezaten. Oartzunen bereziki "Etxean ondo" proiektuaren barruan dagoen beste proiektu bat da.

T.- Ba al du EPA eskolarekin lokerarik?

Ez, Esperientzia Eskola 50 urtetik gorako jendeari zuzendua dago bakarrik, bertan ematen diren ikasgaitik nozio bat hartzea da. Esperientzia Eskolan Ez daude ez azterketarik, ez dago etxeko lanik eta ez da inor arbelera ateratzen ... Gure helburutako bat beraien harremanak sendotzea da.

T.- Gure artean izaten ditugun ikasleek momentu askotan bere burua lanpeturik edo asperturik ikusten dutenean "noiz bukatuko ote da ikasteko garaia!" esaten dute, eta orain zuen ikasleak hor baina ikustean eskolara itzultzera zerk motibatzen dituzten galdetu nahi dizuegu.

Egia da haurra edo gaztea zarenean ikasketak amaitzeko gogoarekin egoten zarela, baina adina aurrera doan hainean, ohartzen zara bizitzan egunero zerbait ikasten dela, eta ikasteko gogoia ez dela sekula amaitzen. Esperientzia Eskola etortzen direnak beraien beharrak asetzeko etortzen dira. Gaur egun bi ikasle motarekin topatzen gara, alde batetik haurrak zirenean ikasten jarraitzeko aukerarik ez zutenak eta bestetik, berriz, gauza berriak ikasteko gogoia dutenak



T.- Zuek, arduradunak, gazteak zarete, eta nola moldatzen zarete ikasle helduekin?

Oso ondo. Ez dugu inongo arazorik guk ere beraiekin ikasten dugu.

T.- Ba al dago ikasle perfil zehatzik, edo ikasle anitzak dira?

Ikasle anitzak daude, Klase berdinean daude ikasketa murritza dutenak edo ikasketa altua dutenak.

T.- Horrelako esperientziak arrakasta izan dezan, zer da garrantzitsua?

Beraiek gustura etortzea klasera. Horretarako kurtso amaieran, Ikasle berak dira ikasgaiak hautatzen dituztenak. Aurtengo ikasgaiak honako hauek dira; Euskal herriko historia, Coaching, Musikaren historia, Memori tailerra, Filosofia, Artearen historia, ... Bestalde kurtsoan zehar proiektu bat egin behar dute eta aurtengo proiektua uken- duak nola egin ikastea izango da.

T.- Gaurkotasunak bultzatuta IKT edo teknologia berriek klaseetan gero eta presentzia handiagoa dute. Zuen kasuan ere nabari al da?

Oraingoz ez, baina koordinatzaileon helburutako bat da.

T.- Eta euskararen presentzia?

Gure bizitzan euskara egunerokoan dago. Klaseak erda-raz izan arren aipamenak euskaraz egiten dira.

T.- Esperientzi hau Oartzundik kanpo ere egiten al da?

Bai, herri ezberdinetan ditugu, Orio, Donostia, Usurbil, ...

T.- Konta al dezakezue gaurko klaserako zer prestatu duzuen?

Gaur Memoria Tailerra dute beraien egunerokoan memo-ria nola landu azaltzen zaie


T.- Beste zerbait aipatuko al zenukete?

Aipatzeko, gogoia duen edonork apuntatu dezakeela Esperientzia Eskolara, beti ere 50 urtetik gorakoa bada noski, eta ez dela inongo titulaziorik eskatzen. Harreman- netarako mugikorra 646098753 da.

Proiektu hau aurrera eramaten lagundu digutenak Eusko Jaurlaritza, Diputazioa, Oartzungo udala, MUGABE elkar- tea eta Haurtzaro ikastolari esker izan da


Hortxe utzi ditugu gelan Garazi eta Ainhoa bere ikaslee-kin. Horien presentzia gustura sentitzen dugu, ikasteko motibazioa urteetan mantentzen dela ikusita. Datorren asteazken arte!






Osatu testua marrazkien
izenak sartuz.

Baditut _____ irakurtzeko,
 _____ bat lagun,
 _____ bat abesteko eta
 _____ joku bat. Jateko ez
 zait _____ falta, eta
 batzuetan _____ en bat ere
 arrantzatzen dut. Egunero har dezaket
 _____, eta nahi dudanean
 bainatu. Horrela bizi nahi dut beti.



PICANYOL



Pertsonaia hauetatik zenbatek daukate ezkerreko aldea beltza?

Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Haurtzaro Ikastolaren izenean





Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARBITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabiloia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@alocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoherenak
Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.L.
KIROLDEGIETAKO KUDEAKETA
GESTION INTEGRAL POLIDEPORTIVOS



ELORSORO KIROLDEGIA · Elorondo, 24
T. 943 492 552 • M. 629 761 852
F. 943 490 561 • gezak@telefonica.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

txinpart⁵⁵

www.haurtzaroikastola.net

